


noaua



MERKATARI ZAINZAILEEN SAREA OSATU DA

Merkatari zaintzaileez gain, festa zaintzaileen eta 'Usurbil, goazen kalera'-ren azpi-markak sortu dituzte / 14-15

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Ixaksonak musika taldeak Uxue Trail probako kanta konposatu du / 06




NOAUA

Elizako kultur ondarea ezagutzera emateko lankidetzaz hitzarmena / 08



NOAUA

Jaietako zikiro janerako txartelak igande honetan jarriko dira salgai / 12



NOAUA

Zumarteko ikasleek ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte / 22

TXIRIBOGA

TABERNA

SANTIXABEL FESTETAN:
(Ostiral gauetik astearte eguerdira)

MENU BEREZIAK AUKERAN:

45€ 47€ 49€

Ondo pasa
Santixabeletan!

943 21 88 40

IRAZU KALEA 6, USURBIL

2. Eskuko testuliburu azoka

Adi !

Dbh.3 - Dbh.4 - Batxi.1 - Batxi.2

Entrega eguna	Ekaina 24 16:00 / 18:00
Liburuak erosi	Ekaina 25 16:00 / 18:00
Dirua jaso	Ekaina 26 16:00 / 17:30

Oharra: Guraso elkarteko bazkideak ez direnentzat entrega eta liburuak erosteko 17:30 / 18:00 izango da
Tokia: Larrekoetxe eraikinean

NOAOA BIDAIAK

Plugia

(Italia)

IRTEERA 2024ko urria

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2024

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK IKASTAROA

Ekainak 21, ostirala
Potxoenean | 15:00-18:00
Irakaslea: Aitor Etxeandia

SARRERAK: Aldez aurretik Alkartasunan edo www.alkartasuna.eus/en

Kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira!

Greba feminista osteko garaiari begira

Kalezarko Pelaioenean kokaturiko Usurbilgo Emakumeon Etxean lanketa saioa iragarri dute gazteekin ostiralerako, ekainaren 14rako, arratsaldeko 17:00etan. Izan ere, Emagin elkartekoen eskutik Euskal Herriko Mugimendu Feministak iragan azaroaren 30ean deitutako greba feminista orokorraren osteko garaia hartuko dute ahotan. "Greba feminista orokorra. Eta orain zer?", hortxe gazteekin bideratu nahi duten lanketarako hizpidea. Informazio gehiago: Belmonte kalea, 8 943 377 112 emakumeonetxea@usurbil.eus



Gazteei zuzenduriko batzarra ostiral honetan egingo da, arratsaldeko 17:00etan Emakumeon Etxean.

Garbigune mugikorra, Mikel Laboa plazan

Ekainaren 13tik aurrera, garbigune mugikorra Mikel Laboa plazan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Ekainaren 20an garbigune hau Aginagara eramango dute.

1950. urtean jaio zirenei deia

Datorren urtean 75 urte beteko dituzten herrikideak biltzeko asmoa dute. Parte hartu nahiko luketen guztiekin hartuemanetan jarri nahi dute. Horregatik, bi telefono zenbakiotara deitzeko gonbita egin diete 1950ean jaioetakoei: 645 736 726 / 678 398 852.

Udajolaseko guraso bilera: ekainaren 18an, Sutegin

Uztailaren 3tik 30era antolatutako udalekuoi buruzko argibideak eskainiko dira guraso bilera horretan. Ekainaren 18an izango da, arratsaldeko 17:00etan hasita Sutegiko auditorioan. Ekimen honetan izena emandako haurren gurasoie egingo da zuzendua.

Jaietako zikiro janerako txartelak

Hilaren 29an egingo da zikiro-jana. Iaz bezala, egun bat finkatu dute txartelen salmentarako. Ekainaren 16an igandea, 30 eurotan (20 eurotan gazteek eta langabetuek) erosi ahalko dira eguerdiko 12:30ean Aitzaga elkartean (Askatasuna plaza aldetik sartuta).

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibildidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ

Buruz behera

Pirinioetako iparraldean izan zen, Biarnon. Aurrena herri batean ikusi genuen, herriaren sarreran. Zer gauza bitxia! Herria zeharkatu eta herri irteeran berriro. Zer gauza kurioa! Herriaren izena jartzen zuen kartela edo seinalea buruz behera zegoen. Ez zigun irakurtzeko astirik eman.

Handik 4 km. ra iritsi ginen hurrengo herrira eta gauza bera: herriaren izena jartzen zuen seinalea alderantziz. Ia arnasarik hartu gabe gurutzatu genuen herria, errepidearen alde bietako etxeei erreparatu ere egin gabe, herri irteerako seinalea nola topatuko genuen pentsatzen ari baikin. Eta hura ere buruz behera. Bitxia benetan!

Hurrengo herrian berdin, hurrengoan ere bai... bosgarren herriaren sarrerako seinalea egurrezkoa eta ongi apaindutakoa zen, eta hura ere buruz behera zegoen.

Zergatik ote zeuden herriaren izena jartzen zuten herri sarreretako eta irteeretako seinaleak buruz behera? Kontxean gindoazen guztion jakin-mina handituz zihoan eta aukera posibleak botatzen hasi ginen:

- Agian ez dute nahi herriaren izena irakurtzerik.
- Hizkuntza gutxituen aldeko aldarrikapen bat izan daiteke, frantsesez idatzita dauden herri-izenen aurka.
- Seguru protestaren bat egiteko aldatu dituztela.



Herriaren izena jartzen duten kartelak edo seinaleak buruz behera daude.

-Nik apustu egingo nuke performance batekin zerikusia duela: artistaren baten lana izango dela.

-Akaso behin-behineko kontu bat izango da.

-Seinale berriak jarri aurretik zaharrek jolastu nahi izango zuten agian.

-Edo mezuren bat eman nahiko dute horrekin...

Konturatzerako aukera posible dezente bururatu zitzaizkigula konturatu ginen. Izugarizko ideien zaparrada izan zen. Seinaleen aitzakian gure sormenari bide eman genion, burutaziorik xelebreena ere posible eginez barre artean. Aze imajinazioa denona. Mundu koadratu eta zurrunetik

**“IDEIAK IBILIAN
HASTEN DIRENEAN,
AUKERA GEHIAGO
IREKITZEN DIRA”**

atera ginen eta nahiz eta jakin errealitatean erantzuna edo arrazoa bakarra izango zela, guk beste hamaika irudikatu genituen.

Gehiagotan egin beharko genukeen ariketa dela ohartu ginen. Zertarako? Bizitzan erantzun posible bat baino gehiago egon daitezkeela jabetzeko. Askotan ideiak zerrendatzen hasten garenean berehala erantzuten digute edo erantzuten dugu ezinezkoa dela, astakeria dela... eta hortxe geratzen da ideia hori moztuta, akabatuta. Aldiz, kotxean gertatu zitzaigun bezala mugarik gabe ideia berriak ibilian hasten direnean, oharkabeen pasatako aukerak edo norberak irudikatu gabeko posibilitateak ikusten hasten gara. Mundua zabaldu egiten da. Ikuspegia ireki eta aukera bat baino gehiago egon daitezkeela jabetzeko ariketa bikaina da.

KzGuneko ikastaroak

Ekainean goizez irekitzen segiko dute hilaren 28ra arte, 9:00-13:00 artean. Uztailean arratsalde, 16:00-20:00 artean. Honatx KzGunera datozten ikastaroen berri:

Ekainak 17-20, 9:00-11:00

“LibreOffice Writer. Zure tes-tu dokumentuak sortu”.

Uztailak 1, 16:00-18:00

“Egon zaituzte aktibo Google Fit eta Wikilocekin”.

Uztailak 3-16, 16:00-18:00

“Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi”.

Uztailak 17-30, 16:00-18:00

“Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPEkin”.

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Lehen sorospenei buruzko ikastaroa

Gai hau jorratuko duen ikastaro teoriko-praktikoa antolatuko du DYA Gipuzkoak ekainaren 17tik 28ra, astelehene-tik ostiralera, 17:00-21:00 artean DYAK Munalurra 26an duen egoitzan. Ikastaro amaierako frogak gairatzen dituen DYA Gipuzkoako eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera izango du.

Izen-ematea:

943 46 46 22

dyagipuzkoa.com

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

Kima
MASAJE LEKUA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

· KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08



Udako etenaldiaren aurretik kantu-jira berezia antolatatu dute ostiral honetarako.

Ikasturtea agurtzeko hitzordu ugari iragarri dituzte

Zumarte

Ekainak 14, ostirala

18:00 Musika eskolako aurreko plazatxoan, Zumarte Musika eskolako ikasleen kontzertuak.

Ekainak 15, larunbata

17:00 Trikitixa, pandero, haize, perkusioko ikasleen kalejira frontoitik hasita.

18:00 Frontoian, Zumarteko musika txokoa, mintzaira, abesbatza eta talde instrumental desberdinen kontzertua.

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

Kantu Taldea

Oporren aurretik, kantu-jira eta afaria iragarri dituzte:

Ekainak 14, ostirala

19:00 Kantu-jira-poteoa Mikel Laboa plazan hasita.

20:30 Kantu-afaria Patrienean. Izen-ematea ekainaren 7an itxi zuten.

Oharra: kantu-liburuxka eramatea gomendatzen da. Ez

duenak NOAA! K.E.-n eskuraz dezake.

Aginagako eskola

Ikasturte amaierako emanaldia iragarri dute Aginagan. "Ikasleek prestatutako gala, komunitatean bazkaria eta sorpresaren bat egon daiteke bazkal ondoren!".

Ekainak 21, ostirala

12:00 Gala.

13:30 Bazkaria jubilatuen eskutik.

Txartela: 20 euro (Arrate tabernan izena eman behar zen ekainaren 6a baino lehen).

17:00 Musika.

Antolatzaileak: Antxomolantxa, Eliza Zaharra, Arrate jubilatuen elkarte, San Praixku guraso elkarte eta Aginaga Herri Eskola.

Ikastola Eguna

Ekainak 14-16

"Usurbil Eskola Agenda 2030" erakusketa Sutegin.

Ekainak 14, ostirala

9:30 "Agenda 30" ikasleen aurkezpena osoko bilkura gela.

Antolatzaileak: Udarregi ikastola eta Hitz Aho guraso elkarte.

Jakin jardunaldia

UEU-ren udako 52. ikastaroen baitan "Gatazkaren memoria, memoriaren gatazka" izeneko Jakin jardunaldia antolatatu dute ekainaren 20rako eta 21erako. Matrikulazio epea zabalik duzue ueu.eus atarian. Aipatzeko bi hitzordu izango dira jardunaldiotan; batetik, Usurbil 1936 elkartearen parte hartzea. Herri honen oroimen historikoa berreskuratzen ari den eragileak saioetako batean parte hartuko du eta horren ostean, ibilaldi gidatua egingo da herrian barrena ekainaren 20an. Biharamuneko, hilaren 21eko hitzorduetako bat, Sutegin egingo da. "Negu hurbilak" filma proiektatuko da 12:30ean kultur-etxe-ko auditorioan. Proiektzio hau irekia izango da, gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalko dira.

'Aitxa Burua' topaketa

Hitz Aho Guraso taldean, pantailen erabilera egokia eta hauek seme-alabei ematea atzeratzea lantzen ari dira. Gipuzkoan antzeko 50 ekimen daude martxan. Topaketa hau "elkar-indartze eta aldarrika-

pen" saio bat izango da. Familiak, gazteak, haurrak... gonbidatuak daude.

Ostegun honetan, hilak 13, Udarregi ikastolako eraikin gorriko erdiko aretoan elkartuko dira, 18:00etan hasita.

Euskal dantzak eta frontenisa Aginagan

4 urtetik gorako haurrentzat eskaintza iragarri du Aginagako San Praixku guraso elkarteak hilabete honetarako:

- Frontenisa: astearte eta asteazkenetan, 15:00-16:15 artean.

- Euskal dantzak: astelehen eta ostegunetan, 15:00-16:15 artean. Izen-emateko deitu 695 723 192 telefono zenbakira. Saio hauen prezioa, 25 euro haur bakoitzeko.

eskura
elkadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiarreneana 1, 1c Usurbil

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

- EGUNEKO MENUA
- KARTA
- RAZIOAK
- HANBURGESAK
- BOKATAK

Instagram Facebook

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiarreneana 2, 943 36 55 81



IXAKSONAK taldea Garate estudioan, Uxue Trailerako abestia grabatzen.

"Lasterketa baterako abestia da eta helburua animatzea da"

IXAKSONAK MUSIKA TALDEA

Ixaksonak taldeak Uxue Trail lasterketarako abestia prestatu du aurtengo eta datozen urteetarako lasterketari martxa jartzeko. "Haurrak ginela Zumarten sortutako talde bat gara". Hamaika urte eta gero, "oso harreman ona dugu. Musika denok partekatzen dugun hobya da".

Uxue Trailen abestia grabatu duzue. Lasterketako antolatzaileek eskatu dizuete ala zuei bururatu zaizue?

Uxue Traileko antolatzaileek kontaktuan jarri ziren Ixakekin eta abesti bat egiteko proposamena luzatu zioten. Printzipioz esan zuten aurtengo edizioerako izateko nahiko justu ibiliko zirela denboraz, baina datorren urterako ere izan zitekeela ideia. Orduan, Ixaki bururatu zitzaion ideia polita izan zitekeela gure taldeari ideia hori bota eta denon artean abesti hori sortzea. Hasieratik hasi ginen Ixakekin, Zumarten lanean hasi zenean sortu zuen lehen taldea izan ginen. Proiektu polita iruditu zitzaion guretzat horrelako zer-

bait egiteko aukera. Taldeak hamaika urte inguru ditu eta sortu zenetik bertsoak jotzen aritu gara. Ideia polita izan zitekeela pentsatu zuen gure kanta propio bat sortzea.

Taldearen izena ezagun egingo zaie batzuei, baina kontzerturik ez duzue ia inoiz eskaini.

"IDEIA ZAPARRADA BAT EGIN GENUEN AZALDU NAHI GENUENA ISLATZEKO"

Haurrak ginela Zumarten sortutako talde bat gara. Izenak berak ere erakusten du haurrek edo gaztetxoek sortutako zerbait izan daitekeela. Taldea sortu zenetik, urtero jarraitu dugu Zumarten izena ematen taldearekin jarraitu ahal izateko eta hamaika bat urte beranduago hemen jarraitzen dugu

"BADAKIGU BATEN BATZUK KOREOGRAFIAREN BAT PRESTATZEN ARI DIRELA ABESTIAREKIN"

proiektu berri honekin eskuartean. Hasieran Zumartek antolatzen dituen kontzertuetan parte hartzen genuen eta orain jada hori alde batera utzita daukagu. Astean behin elkar-tzen gara asteazkenetan bertsoak jo eta musikaz gozatzeko. Gure urteroko ekitaldia Usurbilgo jaietako Bertso Gaua izaten da, horrekin jarraituko dugu aurren ere. Zumarteko kurto erdiko kontzertuetan bi abesti jo ditugu aurren, baina gure zita nagusia Bertso Gaua izaten da. Ikasturte osoan zehar, elkartzen gara bertsoak jo eta ondo pasatzeko. Ez dauka beste helbururik gure taldeak, ez kontzertuak ematea, ez abesti propioak asmatu eta diskoa grabatzea. Musikarekin jarraitzeko modu bat da guretzat, oso harreman ona dugu eta partekatzen dugun hobya da musika nolabait.

Talde bera izan zarete sorreratik?

Asko aldatu da ordutik. Hasieran gehiago ginen eta beste taldekide batzuk ere bagenuen, baina hainbeste urtetan jende askok utzi egin du Zumarte edo musika. Hiru sorreratik gaude batera eta bi fitxaketa berri egin ditugu.

Bideoklipik izango al da?

Abestiaren helburua lasterketako eguna giotzea da. Badakigu baten batzuk koreografiaren bat edo zerbait prestatzen ari direla abestiarekin, baina ez dakigu oso ondo abestiaren gainean zer gehiago egin nahi duten. Gure lana abestia asmatu eta grabatzea zen eta hori egin dugu guk. Egunean bertan ere joko dugu, hori da asmoa behintzat. Abestia ez da gurea, Uxue Trailena da. Grabaketak amaitu genituen eta orain prestateta fasean dago. Bi astean asmatu genuen kanta eta estudioan sartu ginen. Entsegu batean erritmoak markatzen hasi ginen eta inprobisazioaren bidez gauzak lotzen hasi ginen. Lasterketa baterako abestia da eta helburua zerbait animatua izatea da, korrika egin bitartean

→ entzuteko moduko zerbait izatea. Ideiak lotuz, entsegu batean egitura pentsatu genuen eta gero hurrengoan forma eman eta letra asmatu genuen. Etxean ideia zaparrada bat egin genuen azaldu nahi genituen ideia nagusiak mahai gainean jartzeko.

Uxue Trailen parte hartu izan duzue korrika?

Bai, gutako batek hartu zuen parte urte batean. Oso esperientzia polita izan zen. Lasterketa gehiagotan parte hartu izan du, baina herrian bertan lehiatzeko aukera izatea ezberdina da. Denak ezagunak dira eta horrek giro berezia sortzen du. Kanpoko jendearekin ere giro ederra egoten da. Lehiatu nahi duenarentzat beti egoten da aukera markak egiten saiatzeko edo dena delakoa, baina gehiengoan ondo pasatzera joaten da eta hori da politena. Giro bikaina izaten da frontoi inguruan eta baita mendian ere. Esperientzia ederra da. Oinezko martxa egin izan du beste taldekide batek eta oso esperientzia ona horretan ere.

Taldea aspaldi sortu zenuten, baina lehen grabaketa zenuten hau.

Momentuz etorkizunerako ez daukagu ezer gehiago grabatzeko asmorik. Datorren urterako Zumarten izena eman dugu, hori da garrantzitsuena. Urtebetez jarraituko dugu, beraz. Horrelako beste aukera batzuk sortzen badira, ongi-otzariak izango dira. Behin estudioan abesti bat grabatuta halako har bat sortu zaigu barruan, baina ikusi beharko da gerora zer egin.

Oraindik ere Ixakek eramaten du taldea edo modu independentean ibiltzen zarete?

Ixak arduratzen da taldeaz. Ixak da gure irakaslea eta hala izan da betidanik. Horrenbeste urteren ondoren, familia moduko bat gara eta jada ez dago hierarkia hori ikasle eta



Ixaksonak taldea Garate Estudioetan lehen aldiz.

irakasleen artean. Hona etortzen gara, hitz egiten dugu eta musikaz gozatzen dugu. Asteazkenetako gure plan pertsonala da. Ixakek gidaritzalana egiten du eta ideiak ematen dizkigu. Abestiak guk proposatzen ditugu normalean, baina berak ere ideiak ekartzen dizkigu eta denon gustuko kantak jotzen ditugu. Batzuk taldean bakarrik gabilta, hau da, Zumartera Ixaksonak taldearekin jotzera etortzen gara. Hala ere, oraindik taldeko hiru klaseak hartzera etortzen dira modu indibidualean ere. Urte asko daramatzagu hemen eta instrumentuak behar bezala jotzen ditugu, maila polita

daukagu. Egun, hiru gitarjole, baxua eta bateriajolea gara. Joan zen urtean, ordea, hiru bakarrik egon ginen momentu batzuetan eta baita bi bakarrik ere hilabete batzuetan. Orain bostok gabilta urte osoan zehar. Bakoitzak bere instrumentua jotzen du eta abestera ere ia denok animatzen gara. Uxue Traileko abestian ere ia denok abesten dugu.

Bertsio Gaua izango da hurrengo zita. Zerbait aurreratzeko moduan zarete?

Dover taldearen abestiak bertsionatuko ditugu. Horraino egin dezakegu irakurketa momentuz.

"BAKOITZAK BERE INSTRUMENTUA JOTZEN DU, ETA ABESTERA ERE IA DENAK ANIMATZEN GARA"

"BEHIN ESTUDIOAN ABESTI BAT GRABATUTA, HAR MODUKO BAT SORTU ZAIGU"

Igandean, 4. Uxue Trail

4. Uxue Trail Mendi Lasterketa solidarioa igande honetan egingo da. Hilaren 14an itxiko dute izen-ematea. Berrikuntzarik badakar aurten. Uxue Trail Motzak ibilbide berria izango du. Denok parte hartzeko moduko ekimena prestatu dute gainerrakoan, lasterketa, paseo eta dortsal solidarioaren bidez. Ekimen honen xedea, gogoan izan, "Phelan-McDermid Syndrome, edo 22q13 kromosomaren gabetzea" Uxue Martin herrikideak duen gaixotasun arraroa ezagutaraztea da eta haren ikerketarako laguntza biltzea.

Mendi lasterketa solidarioa

- Ekainak 16, igandea.
- Ordua: 9:00.
- Tokia: Usurbilgo frontoia.
- Lasterketa motak:
 - Uxue Trail Luzea (20 kilometro): 25 euro.
 - Uxue Trail Motza (11,5 km): 15 euro.
 - Uxue Paseoa (5,5 kilometro): 12 euro.
 - Dortsal solidarioa (donazioa).
- Oharra: oparienezko zozketa lasterketa amaieran, parte hartzaileen artean.
- Izen-ematea eta informazio gehiago hemen: kronoak.com
- Izen-emateko epea: ekainaren 14ko gaueko 22:00ak arte (egunean bertan, izen-ematea 5 euro garestiago).



Eliza bera, organoa, erlojua eta kanpandorra ezagutzeko aukera emango dute, 650 Usurbil Bizik eskaintzen dituen bisita gidatuen bidez.

Salbatore elizako kultur ondarea ezagutarazteko lankidetzaz hitzarmena

Salbatore elizako kultur ondarea ezagutzera emateko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Usurbilgo Udalak eta Salbatore parrokiak datozen bi urteotarako, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Usurbilgo Udaletik aditzera eman dutenez, "eliza bera, organoa, erlojua eta kanpandorra ezagutzeko aukera emango dute, 650 Usurbil Bizik eskaintzen dituen bisita gidatuen bidez. Hitzarmenean, bisiten ezaugarriak eta bi aldeek hartutako konpromisoak zehaztu dituzte".

Gogoan izan, 650 Usurbil Bizi "identitatean, baloreetan, ondarean eta egitasmo eraldatzaileetan" oinarritutako turismo proiektuaren baitan irudikatu ziren hamalau lau-lerroetako bat hain zuzen, Ondarearen Usurbil da. Egitasmo hartan jaso bezala, herriko ondarea zaindu, berreskuratu eta balioa ematea da udalaren xede nagusieta-ko bat. Horren adibide dira Andatzen egokitutako bi ibilbideak; Errotarren Bidea eta

Oroimen Ibilbidea. Alor honetako eskaintza zabalduko dute aurrerantzean Salbatore elizan egingo diren bisita gidatuek. "Bisita horiek udalarentzat zein parrokiarentzat bideragarriak izan daitezten, hainbat alderdi adostu eta zehaztu dituzte hitzarmenean. Esaterako, urtean hamabi bisita izango dira, ordu eta erdikoak, eta hamabi lagunentzako lekua izango da".

Laster iragarriko dituzte bisitak Hiru bisita mota eskainiko dituztela iragarri dute, "txandaka: batzuetan eliza eta 1907an Parisko Cavaillé-Coll lantegietan eraikitako organoa ikusteko aukera izango da; beste batzuetan, eliza, kanpandorra eta Benito Yeregui Goldarazena egin eta 1912az gozotik bertan den erlojua;

eta, beste zenbaitetan, soilik eliza ezagutzeko. Bisitetako gidaria udalak jarriko du, eta organo-jolea, berriz, elizak izendatuko du". Bisiten egutegia udalaren eta parrokiaren artean zehaztu dute, eta 650usurbilbizi.eus webgunean iragarriko dituzte gutxi barru.

Hitzarmen berri honen harira, "Udalak bere gain hartuko ditu bisiten ondorioz sortzen diren elektrizitate gastuak, baita elizako erlojuaren mantenu gastu batzuk

**"URTEAN
HAMABI BISITA
EGINGO DIRA,
ETA HAMABI
LAGUNENTZAKO
LEKUA IZANGO DA"**

ere, hitzarmenak iraun bitartean. Bisiten aseguru ere eginda du. Horrez gain, dagoeneko zenbait lan eginak ditu udalak, hitzarmenaren ondorioz: erlojutik kanpandorrera bitarteko eskailerak konpondu ditu, baita kanpandorrearen gunea garbitu ere". Halere, hitzarmen honen sinatzaileek ohartarazi dutenez, bisita hauek ez da irigarritasuna bermatuko eski-larak igo beharko dira eta.

"Transmisioan sakondu nahi dugu"

Lankidetzaz hitzarmen honen harira, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak azaldu duenez, "Usurbilgo ondarea denetarikoa eta aberatsa da. Historia, kultura, industria, natura... iraganak utzi dizkigun altxorrek ugariak dira. Proiektu honen bidez, batez ere, transmisioan sakondu nahi dugu", nabarmendu du Agurtzane Solaberrieta Mesa Usurbilgo alkateak. Alkateak gaineratu duenez, "uste dut ez dagoela Usurbil osoan toki ederragorik, eta aukera hori herritarrei eta bisitariei ere emango diegu aurrerantzean".

Usurbilgo parrokiako arduradun taldeko ordezkari gisa, apaiz Ibon Alberdi Urrestarazuk, azpimarratu du jakitun direla kudeatzen duten ondareaz eta bere garrantziaz. "Gizaldi luzez zaindu du Usurbilgo kristau elkarteak ondare hau: zaintza zaila eta garestia izan da". Beti izan dute ondare hori jendearentzat irekita: "Orain arte ere, eskatzen zuenari irekitzen, erakusten eta esplikatzeko zaio ondare guztia: zenbat talde gerturatu dira horrela!". Tartean dira, elizan Donostiako Musika Hamabostaldien baitan eskainitako kontzertuak edota Usurbilgo Zumarte musika eskolarekin duten elkarlana. Orain, hitzarmen berri honekin, "gure esku dagoen ondare hau are gehiago zabaldu nahi dugu".



Igogailua eraikitze lanetarako, Udalak 850.000 euroko partida sortu du.

Etxealdia eta Kale Nagusia lotzeko igogailua aurreikusi baino lehen eraikiko dute

Era honetan, auzoaren eta herri erdigunearen arteko mugikortasuna erraztu nahi da.

Aurreikusia zuten baina uste baino lehen bideratuko dute azkenean; Etxealdia eta Kale Nagusiak izango duten lotune berriak ari gara. Izan ere, igogailu bat eraikiko du Udalak auzoa eta herri erdiguneko pasabide nagusietako baten arteko mugikortasuna erraztu eta irisgarritasuna bermatze-

ko. Albiste honi atxikitako argazkian ageri den zonalde horretan eraikiko dute.

Igogailu honen eraikitzea udal gobernu taldeak aurreko 2019-23 legealdian Etxealdia-ko bizilagunekin batera hasitako lankidetzaren prozesuaren baitan kokatu beharra dago. Izan ere, auzoak zuten irisga-

rritasun arazoei heltzea erabaki zuen elkarlanean. Prozesu haren emaitza izan zen osatu zuten irisgarritasun plana. Plan horren baitan berri eta oinezkoak lehenesten zituen moduan konpondu zuten Kale Nagusitik auzorako sarbide nagusia den San Esteban kalea.

Udal gobernu taldeak azkeneko osoko bilkuran berri eman zuten, plan hau gauzatzeko bigarren fasean daude egun. Auzoaren behealde txukuntzeko lanetan ari dira.

Gogoan izan, "auzoaren irisgarritasuna hobetzeko eta HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzeko hainbat bilera egin zituzten aurreko legealdian, eta orduan adostutakoak gauzatzen" hastea adostu zuten. Hala, iazko iraileko osoko bilkuran egindako kreditu aldaketarekin (300.000 eurokoa, 2023ko aurrekontuetan aurrez gordetako 75.000 euroei gehitzeko), auzoaren beheko zatiko aparkalekuen ingurua "berrantolatzea erabaki zuen Udalak. Auzotarrekin kontrastatzeko zuten obren exekuzio proiektua idazten hasi zen, aurten lanok gauzatzeko.

2025ean eraikuntza lanak

Etxealdiari lotutako egitasmo gehiago ere bazituen eskurtean Udalak; tartean zen, lerootan mintzagai dugun igogailua, hau ere irisgarritasun planean aurreikusia zuten. Baina izatez, aurrerago gauza-

tzekoak ziren. Halere, orain dela bi asteko osoko bilkuran EHBilduren udal gobernu taldeko kideek aditzera eman zuten, duela hilabete batzuk Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza deialdi batera aurkeztu zuten proiektua eta 370.000 euroko dirulaguntza jaso du. Horrek eragin du haien esanetan, proiektu honen eraikuntza aurreratzea. "Oso dirulaguntza garrantzitsua lortu dugu guretzat estrategikoa den proiektuarentzat". Trukean, "proiektua lizitatu eta exekutatu beharra" du Udalak, alegia aurreikusia zuena baino lehen gauzatu behar du.

Ondorioz, igogailua eraikitze lanetarako 850.000 euroko partida sortu du Udalak. 370.000 euroko dirulaguntza txertatu du partida horretan; gainerakoa, erdia baino gehiago, diruzaintza gerakinetik jasotakoa izango da. Aldaketak egon daitezkeela jakinda, "dena ondo bidean", 2025. urtean eraiki dezakete Etxealdiako igogailua, lan hauek azarorako lizitatu ostean.

Erabakiok udalbatzaren aho bateko babesa jaso zuten maiatzaren 30eko osoko bilkuran.

EUSKO JAURLARITZAREN DIRULAGUNTZA BAT JASO DU UDALAK

Zubietako Lanbide Eskolako eta Udarregi ikastolako obrek interes bereziko izendapena jaso dute

Lanbide Eskolan zein Udarregi ikastolak Agerialdeko eraikinean egin asmo dituzten lanek interes berezikoak izendatzea erabaki zuen udalbatzak aho batez, maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran. Ondorioz, lan hauengatik ordaindu beharrezko zergan %50eko hobaria apli-

katuko die Udalak. Inbertsio ezberdinak izan arren, irizpide bera aplikatzea hobetsi du udalbatzak, "interes orokorreko" obratzat jo dituztelako.

Lanbide Eskolaren kasuan, berriki egindako obrari aplikatuko diote aipatu hobaria. Hain zuzen, ikastetxe atzeal-

dean formaziora begirako azpiestazio modukoa eraiki dute. Udarregiren kasuan, kalitatezko hezkuntza eskaintzen segitzeko bide horretan, uda partean egin asmo dituen obren tzako eskatu du hobari hau.

Ikastolan indarrean duten metodologia pedagogikora

espazioak egokitzeko hainbat aldaketa egiten ari dira azken urteotan Udarregi Agerialden duen eraikinean. Iaz solairuetako batean egin zituzten birgaitze lanak. Aurten beste batean egin asmo dituzte. Espazioa Udarregi berak egokituko du, baina udal eraikina izanda, Udalak egingo ditu instalakuntzari lotutako lanak. Lanotara 70.000 euro bideratuko dituzte.



Puntapax kaleko aldapa berritzeko 104.000 euro gehiago bideratuko dira.

Kreditu aldaketa hainbat egitasmoetarako

548.700 eurokoa izango da eta zenbait partida diru gehiagoz hornitzeko baliatuko dute.

Kreditu aldaketa baten berri ere eman zuten maiatzaren 30eko osoko bilkuran. 548.700 euro ingurukoa da honako hau; zenbait partida diru gehiagoz hornitzeko baliatuko dute diru kopuru hau, baina baita beste hainbat egitasmo sustatzeko ere. Horietako batzuen aipamena egin zuen udal gobernu taldeak duela bi asteko udalbatzarrean. Lerrootan dituzue xehetasunak.

Udal artxiboaren txukuntzea

Itoginak ditu Usurbilgo Udaleko teilatuak. "Konponketa behar du", udal gobernu taldeak azkeneko osoko bilkuran berri eman zuten. Ondorioz, teilatu azpian dagoen udal artxibategia Atallun udalak dituen instalakuntzera eramango dute. Uda honetan ekin asmo diete lan hauei. Leku aldaketa hau baliatuko dute, gainera, udal artxiboa txukundu, eguneratu eta digitalizatuko.

Lanak amaitutakoan ez da jatorrizko gune honetara itzuliko. Udal gobernu taldeak iragarri dutenez, udal espazioa berrantolatu asmo dute. Horren

baitan, zenbait zerbitzu Udalak Barrenkalen duen lokalean kokatuko ditu etorkizunean; hala nola, udaltzaingoa edota gizarte zerbitzuak. Gogoan izan, gizarte zerbitzuen egoitza egun Kale Nagusian kokatua dago. Honenbestez, hutsik geratuko den azken espazio hau baliatu nahi du Udalak udal artxibategia bertan kokatu eta horrez gain, "herritarrei irekitako zerbitzua izateko". 30.000 euro bideratu asmo dituzte egitasmo honetara.

Familia eskuhartzeak

Egitasmo honetara 70.000 euro bideratzeko partida jasoa zu-

**UDALEKO
TEILATUAK
ITOGINAK DITU
ETA KONPONKETA
BEHAR DU.
BIEN BITARTEAN,
ARTXIBOA
ATALLURA
ERAMANGO DUTE**

ten 2024ko udal aurrekontuetan. "Motz geratu zaigu", ordea, udal gobernu taldeak duela bi asteko osoko bilkuran berri eman zuten. Horregatik, beste 20.000 euro erantsiko dizkiote egitasmo honi.

Udarregi ikastola

Udarregi ikastolan indarrean duten metodologia pedagogikora espazioak egokitze hainbat aldaketa egiten ari dira azken urteotan Udarregi Agerialden duen eraikinean. Iaz, solairuetako batean egin zituzten birgaitze lanak. Aurtent beste batean egin asmo dituzte. Espazioa Udarregi berak egokituko du, baina udal eraikina izanda, instakuntzari, eraikinari lotutako lanak Udalak egingo ditu. Lanotara 70.000 euro bideratuko dituzte.

Irisgarritasun plana eguneratuko da

Beste 18.000 euro bideratuko dituzte Usurbilgo Irisgarritasun Plana eguneratzera. Maiatza amaierako osoko bilkuran udal gobernu taldeak berri eman zuten, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bat eskuratu dute eta aipatu plangintza horretara bideratuko dute. Faseka gauzatuko dute.

Kalezarko aldapa

Ugartondoko Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitario paretik Kalezarrerera igotzeko aldapa berritza doaz. 104.000 euro bideratuko dituzte lan hauetara. Lehendik gordeak zituzten 90.000 euroko partidari erantsiko diote.

Diru txertaketa

Hutsik duten udal aurrekontuetako bosgarren kapituluan dirua txertatzeko ere baliatuko du kreditu aldaketa hau udal gobernu taldeak. 80.000 euro sartuko dituzte, xede nagusi batekin; "aurrekusi gabeko bestelako partidak sortuko balira, gastu horiei berehala aurre egiteko".

2025 urteko jai egunak

Apirila amaieran zehaztu ziotuen Eusko Jaurlaritzak EAEn izango ditugun jaiegunak. Honako hauek izango dira: urtarrilaren 1a eta 6a, apirilaren 17a, 18a eta 21a, maiatzaren lehena, uztailaren 25a, abuztuaren 15a, azaroaren 1a eta abenduaren 6a, 8a eta 25a. Guztira hamabi festa egun izendatu zituen, beste bi falta ziren zehazteke; bat herrialde bakoitzeko Foru Aldundiak finkatu ohi duena (Gipuzkoakoan, uztailaren 31).

Bestea, tokian tokiko udalek izendaturikoa. Azken hau uztailaren 2a izendatzea erabaki zen maiatzaren 30ean eginitako osoko bilkuran.

Uraren inguruko 2023ko txostena argitaratu du udalak

Hondakinekin egiten den bezala, ur kontsumoari lotutako hainbat datu argitaratu ditu Udalak aurrerantzean. "Datuek erakutsi dute, besteak beste, ur kontsumoak goraka jarraitzen duela, azken urteetako joerari eutsiz: 2023an, 690.000m3 kontsumitu ziren Usurbilen", udal iturriek adierazten dute. 2023a urtea ez-ohikoa izan zen, filtrazio sistemaren berrikuntzak egin zirelako. Eta horrek bere isla izan zuen kontsumoaren datuetan ere. Esaterako, obrak egin bitartean, Añarbeko ura banatu zen etxebizitza guztietan: 2023an uraren %82a Añarbeko Mankomunitatetik hornitu zen, eta %18a, Erroizpetik.

2024ko datuak bestelakoak izatea espero du udalak. "Izan ere, maiatzaren 20az geroztik Erroizpeko presaren hornitze eremua zabaldu egin da ia kaxko osora", herriko etxebizitzaren %62 inguru Erroizpetik hornituz.

Udarregi ikastolaren ikasturte amaierako festa izan da asteburuan

Urtero legez, ikasturte amaierara heltzen ari dira haur eta gaztetxoak eta hori omentzeko, Udarregi Ikastolaren Eguna ospatu zuten aurreko asteburuan. Ostiralean, motorrak berotzen hasteko, txokolate jana antolatu zuten eta DJ Mendi aritu zen Askatasuna Plazan.

Egun handia, berriz, larunbatean izan zen. Goizean, ohi bezala, jolasak egin zituzten Ikastolako instalazioetan eta ondoren, bazkari jendetsua osatu zuten frontoian. Azkenik, egunarekin amaitzeko, DBHko ikasleek emanaldi berezia osatu zuten guraso, irakasle eta laguntzat.



Txokolate janerako eta dantzaldirako ilara luzea osatu zuten gaztetxoek.



Jolasak protagonistak larunbat goizean Ikastola inguruan.



Bazkalostean emanaldia eskaintzen DBHko ikasle talde bat.

Kalejiran dantzan, ikasturte emankorra agurtzen hasteko

Talde ezberdinak batutako kalejirarekin ekin zioten ikasturte amaierako saioari Oiar-do kiroldegitik. Mikel Laboa plazan eginiko geldialdiaren ostean, Artzabalen eskaini zuten emanaldi nagusia. Orbeldik hilabeteotako jarduna agurtu du bai, baina ez doaz

oporretara. Abiatzear dugun udan eta urte garai horrekin batera, hastear diren festen denboraldian ikusiko ditugu berriz. Dantza erakustaldi ederrak eskainiko dituzte, hasteko, datozen asteotan, Kalezarko nahiz Usurbilgo jaietan.



Ikasturtearen agurrean parte hartu zuten dantzari taldea.



Orbeldik Artzabalgo plazan eskainitako emanaldi txalotua.



Kalejiran barreiatu zuten Orbeldik dantza giroa.



Zikiro-janerako txartelak igande honetan salduko dituzte Aitzaga elkartearen.



Jubilatuaren bazkarirako txartelak ekainaren 17an jarriko dituzte salgai.

Santixabel jaien inguruko hainbat ohar

Badator uda eta harekin festa giroa. Inguruotako jaien denboraldiari Kalezarren ekingo zaio San Joan jaiekin. Usurbilgoek hartuko diete lekukoa gero.

Zikiro-janerako txartelak

Ekainaren 29an egingo da bai-na txartelak igande honetan, ekainaren 16an jarriko dituzte salgai eguerdiko 12:30ean hasita Aitzaga elkartearen (Askatasuna plaza aldetik sartuta).

Jubilatuaren bazkarirako txartelak

Aurten ekainaren 30ean, igandearekin Atxega jauregian

ospatuko den otordurako txartelak ekainaren 17tik (hilarren 17ko goizeko 10:00etatik aurrera) 19ra jarriko dituzte salgai Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuen bulegoan edota hiru jubilatuek elkarteetan; Usurbil, Santuenea eta Aginagakoan agortu arte. Gurea Pakea, Gure Elkartea edo Arrate elkartearen agortuko balira,

gizarte zerbitzuetara jo behar da. Bi prezio izango dituzte txartelok; 20 eurotan eskuratu ahalko dituzte 60-65 urte artekoek. Aurten 65 urte izan edo beteko dituztenek eta hortik aurrerakoek 10 eurotan erosi ahalko dituzte. Honako menu hau dastatu ahalko da: urdaiazpiko iberikoa, itsaski entsalada epela, txangurrozko kurruskia, onddoen hostorea hasteko; gero, aukeran, bakailu konfitatua pikillo-ohearekin edo txahalkiak ardo beltz pu-rearekin. Postrerako ere aukeran, tarta dastaketa eta fruitu gorrien yogurt krema.

Haurren Eguneko ekintzak

Uztailaren 1ean ospatuko da. Egun horretako ginkanan (LH

1-4 artekoentzat) eta erronkan (LH5-DBH2 artekoentzat) izena ekainaren 19a baino lehen eman behar da. Ikastetxe orrialdean, bertan izen-abizenak eta ikasmaila zehaztuz. Bestela, e-mailez: umeen.eguna@gmail.com. Antolakuntzatik ohartarazi dutenez, uztailaren 1ean, Erronkan parte hartuko dutenek aldatzeko arropa eraman behar da.

Santixabel jaien aurkezpena

Estreinakoz, Jai Batzordeak ekainaren 27tik uztailaren 2ra ospatuko diren herriko jaiak aurkezteko agerraldi herrikoia iragarri du ekainaren 17an, 18:00etan Mikel Laboa plazan.

San Joan jaietako egitaraua

Usurbilgo jaien aurretik, Kalezarren jaiek emango diete hasiera festen denboraldiari.

Ekainak 21, ostirala:

16:30 Buruhandiak.
17:30 Herriko dantzariak.
Ondoren, auzotarren arteko herri kirolak.
20:30 Auzo afaria.
23:00 Kontzertuak: Txiske-ruak, Zaparra, DJ Fantasia.

Ekainak 22, larunbata: Umeen Eguna

10:30 Umeen krossa (izen ematea 10:00etan itxiko da).

11:30 Umeen jolasak. Ondoren, buruhandiak.
16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da).
16:00 Tailerrak. Ondoren, buruhandiak.
18:30 Txokolatada.
19:30 DJ Gorka Mendi.
00:00 Kontzertuak: Bide Batez, DJ Javi Hidalgo.

Ekainak 23, igandea: San Juan bezpera

10:00 Oilasko biltzaile txikiak.
14:00 Oilasko biltzaile txikien bazkaria.
15:00 San Juan eskearen irteera.



Ekainaren 21ean hasiko dira festak Kalezarren.

22:00 San Juan sua.

Ekainak 24, astelehena: San Juan eguna

11:00 Meza nagusia.
Ondoren, toka txapelketa.
16:30 Buruhandiak.

18:00 Trikitilariak: Ostolaza eta Pujana.

Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik.
Antolatzailea: Kalezarren Jai Batzordea.



Aurtengo lehiaketako sarituak, diplomak eta oroigarriak eskuartean dituztela.

2. Etumeta Literatura Lehiaketako sariak banatu dituzte

Ekainaren 5ean egin zen sari banaketa, Txiribogan. Iñaki Iturriza Domingoren *Aitaren kutxa*-k eraman zuen lehen saria eta beste bik aipamen bana jasotzeaz gain.

Usurbil sortzailea den beste adierazleetako bat dugu, bigarren euskaltegikoek antolatutako Etumeta Literatura Lehiaketa. Ekainaren 5ean banatu zituzten sariak Txiribogan eginiko ekitaldian. Idazlan bat saritu eta beste bik aipamen bana jasotzeaz gain, beste hamalau parte hartzaile erakarri ditu ekimenak bigarren edizio honetan.

Esker oneko agertu ziren antolatzaileak, Etumeta AEK euskaltegiko kideak. Eskertuak parte hartzaileei baita ekimen hau ahalbidetu dutenei ere;

tartean ziren, epaile lanetan jardun duten Ixabel Agirresarobe kontalari, idazle eta sortzailea, baita iaz txapelketa honetan saritu zuten parte hartzaileetako bat, Olatz Allur herrikidea.

Diploma eta oroigarriak jaso zituzten parte hartzaileek baita ekitaldi honi lekua eman eta askaria prestatzen duen Txiribogako arduradun eta literatura lehiaketa honetako sukaldari ofizial Iker Alduntzin Beraetxek. Txapelkunak eta aipamena jasotako sortze lanen egileek, horiekin batera

Hurbilagoren saskia ere eskuartatu zuten.

Txapelduna

- "Aitaren kutxa", Iñaki Iturriza Domingo.

Aipamenak

- "San Jose lorea", Nerea Iraola Jauregiberri.
- "Txomin saga", Edorta Larrañaga Badiola.

Parte hartzaileak

- "Amatxo triste dago", Yosu Galdos Barquin.
- "Bakardadea", Noelia Perez Alcalá.
- "Gelako baloiak", Iñaki Agirresarobe Arzallus.
- "Giltzak", Uxue Fernandez Lasa.
- "Gure karnaba polita", Antonio Mangas Trigo.
- "Hau dek hau bizkotxo!", Ainhoa Urizar Bel.

- "Iñigo harri jasotzailea", Erika Cedillo Rodriguez.
- "Kaxak", Mikel Rezola Garcia.
- "Mendian arriskua", Ekhine Balerdi Goitia.
- "Mirenen saiakerak", Inmakulada Matxinandiarena Arsuaga.
- "Natura arnastu nahi dugu", Xabier Aranburu Muguruza.
- "Roletan kulunka", Leire Iturrioz Azkonobieta.
- "Udaberri magikoa", Oihana Lizaso Matxain.
- "Unax eta Kiraren emozioak", Amaia Murugarren Merino.

Aurrematrikulazioa AEKn

Zabalik da 2024-25 ikasturteko aurrematrikula epea Etumeta AEK euskaltegian, ekainaren 28ra arte. Orain izena emanda, hainbat abantailez gozatzeko aukera izango duzue: aurtengo prezioari eustea, ordainketa malguagoa, lehen-tasuna taldeak osatzerakoan, aurrematrikularen %100eko itzulketa ikastaroa ez egitea erabakiz gero ikastaroa hasi aurretik... Aurrematrikula online egin daiteke aek.eus/aurrematrikula/ atarian. Informazio gehiago: 607 609 379 usurbil@aek.eus aek.eus

"ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU PARTE HARTU DUTEN GUZTIEI"

Etxealdiako zubia eraitsiko dute egunotan

Tren geltoki berriko lanei lotutako oharra segidan. Txaramunto parean N634 errepidea gainetik tren geltokirantz eta Zumarte industriagunerantz zeharkatzeko aldi baterako pasabidea zabalik da iragan maiatzaren 27tik, Etxealdia parkekoa eraitsi eta berri bat eraiki behar dutelako. Hamar

hilabetez erabili beharko da zubi hori. Udalak jakinarazi duenez, orain, egunotan egingo dituzte Etxealdiako zubia botatzeko lanak; ekainaren 11tik 13ra. Ondorioz, N634 errepidea itxi egingo dute gauez, 22:00-06:00 artean, Atxega paretik Oxtaperaino. Behin-behineko zubi alternatiboa eraiki

zutenean bezalaxe, ordu tarte eta egun horietan, ibilgailuen joan etorria Kaxkotik barrena bideratuko da. "Aurrekoan bezala, udalak oraingoan ere eskatu die langile bat jar dezatela ibilgailu handiak kaxkora ez bideratzeko, trabatuta gelditzeko arriskua saihestuz", ohartarazi dute Udaletik.



Ekainaren 11tik 13ra, N634 errepidea gauez itxiko dute eta trafikoa kaxkotik bideratuko dute.



Herri zaintzaileagoa eraikitzeko ekimen berriak sustatu dituzten eragileak, irudi berriarekin.

Mugarri berria, herri zaintzaileagoa eraikitzeko bidean

"Zaintzak ekimen ezberdinak blaitzea". Xede horrekin, Usurbil herri zaintzaileagoa izateko hiru ekimen aurkeztu ditu egunotan Udalak herri eragile gehiagorekin lankidetzan. Ez bakarrik, Usurbilgo alkatearen esanetan, "elkar zaintzako ekimenak askotarikoak izan daitezkeelako".

Oraingo honetan, ordea, hiru aurkeztu zituzten. Batetik, covid19ak eragindako osasun krisialdiak eten eta apirilean indarberrituta itzuli zen "Usurbil, goazen kalera" ekimena dugu. Asteartero ordubeteko herri barruko paseoa eginez, ariketa fisikoa taldean egin eta belaunaldi arteko harreman-tzea sustatzen du. Lehen kaxkoan egiten zen, baina orain Usurbilgo herri eta auzoetara hedatu da, eredugarritzat jo zuten lankidetzaren, tokian tokiko ikastetxe eta jubilatuek elkarrekin eskutik. "Hurrengo ikasturtera begira jarraipena emango zaio", udaleko zaintza sistemako koordinatzaile Mainer Irisarrik Potxoenero agerraldian iragarri zuenez.

Jai zaintzaileak

Zaintza zeharlerroa duen egitasmoetako bat da hau, baina "ez bakarra". Usurbil herri zaintzailea zigilu horren baitan, beste bi egitasmo aurkeztu zituzten, hauek bai, estreinakoz. Batetik, ate joka ditugun herriko jaiak hartu zituzten ahotan. Izan ere, alkatearen esanetan, "ulertzen dugu fes-

tek adinik ez dutela izan behar, guztiok dugula gure egunerokotasunetik atera eta festez gozatzeko aukera eta eskubi-dea. Egitarauak ere horri erantzun behar dio". Horregatik, Jai Batzordetik "lan handia egin da". Festei buruzko xehetasunak, Usurbilgo jaiak aurkezteko datorren astelehenerako, ekainaren 17rako

"OSO ARGI GENUEN ZAINZTA LANA BETI EGIN DUTELA DISKREZIO OSOAREKIN. HALA SENTITZEN DUGU"

"HELBURUA DA, HERRITARREN ZAINZTA ETA ERLAZIO SAREAK INDARTZEA ETA BULTZATZEA"

18:00etan Mikel Laboa plazan iragarri duten agerraldian aurkeztuko dituzte.

Merkataritza zaintzailea

Horrez gain, agerraldi hau bereziki, merkataritzaren alorrean abiarazi duten zaintzari lotutako egitasmoa azaltzeko baliatu zuten sustatzaileek. Zaintza ekosistema berria eraikitzeko bere garaian osatu ziren lan taldeetako batean, komunitatea deiturikoan, "atera zen merkataritza zaintzailearen ekimena", berri eman zuen Irisarrik Potxoenero prentsaurrekoan. Bost emakumeek osaturiko lan talde horretako kideetako batek, Itziar Illarramendik adierazi zuen bi lan-ildori heltzea erabaki zutela; lehen aipatu moduan, herriko jaiak eta datozten lerrootan azalduko dizuegun herri merkataritzari lotutako egitasmoari. "Oso argi genuen zaintza lana beti egin dutela diskrezio osoarekin eta hala, sentitzen dugu, gainera, batez ere lan isila, ez baloratua", aitortu zien herri merkatariei Illarramendik. Izan ere, dendariei "entzumen aktiboa egitea" egokitu ohi zaie bezeroekin.

Hori horrela izanik, "pentsatzen genuen hori dena zabaldu, konektatu eta herri mailako sare bat sortzea". Zaintza sare hau eraikitzeko, "gauza txiki eta sinpleenetatik abiatu beharra dago", azaldu zuen Illarramendik "eta merkataritza sarea iruditzen zaigu, garrantzitsua dela". Hori eraikitzeko "lan ugari dugu eta denbora dezente beharko dugu", baina "baikortasun hori badugu, eta kanpoan tinkotasuna beharko dugu". Sentsibilizazioa hedatu nahi dute, lankidetzatik urratsak ematen joan. "Ekimenaren helburua da, herritarren arteko zaintza eta erlazio sareak indartzea eta bultzatzea. Horren baitan ere pertsona zaurgarrien detekzioa eta artatzeko gizarte zerbitzuek komunikazio kanal

bat zabaltzea, prebentzioari begira", azaldu zuen Irisarrik.

Zainketarako eremuak

Orain arte bezala, aurrerantzean ere zaintza lanetan segiko duen herri merkataritzaren sare hori "ongizatea eta autonomia bermatzeko ekintzak egiten dituzten" dendariak eta herrian erosten dutenek osatzen dute. Herri merkataritza bizirik eusten ahalegintzeaz gain, Usurbil herri zainzaileago bat izateko lanean diharduen sektoreak egiten duen ekarpena nabarmendu zuen Irisarrik. "Konfiantzazko harremana sortzen laguntzen dute. Haien bezeroak oso ondo ezagutzen dituzte eta harremantzeko guneak sortzen dituzte. Horien bitartez, pertsonen bakardadea saihesten laguntzen dute, autonomia mantentzen laguntzeko eguneroko erosketak egiten laguntzen diete. Horrez gain, egoera zaurgarriak detektatzen dituzte, beti daudelako haien ingurunean gertatzen diren egoera horiekiko erne".

"Elkar laguntzeko gaude"

Usurbilgo merkataritza sektoreko ordezkarietako bat zegoen Potxoeneko agerraldiko mahaian; Ane Loidi. Ildo beretik mintzatu zen. Lerrootan aipaturiko "lanketa hori egiten dugu. Pertsona bat geure establezimenduetan sartzen denean, gehinetan ezaguna, etxean sentitzea nahi genuke. Saiatzen gara bezeroa zaintzen, behar duena ematen". Egitasmo honek ekarriko dien saretzearekin uste dute "denontzako izango dela onuragarria. Elkar laguntzeko gaude". Beraz, merkataritzaren sektoretik herri zainzaileago bat egiten dihardute dendariak



Herri zainzailearen marka berria eta eskuorriak.

eta haiek ere egitasmo honen ezinbesteko partaide izaten segiko dute aurrerantzean, baita bezero diren herrikideek ere. "Herrian erosten duten pertsona orori zuzendua dago. Zaintza beharrak ez du soilik adinarekin zerikusia, agian bizitzen ari zaren unearekin izan dezake zerikusia".

Pantailak saihesteko

Adinekoei, baina baita haur eta nerabeei zuzendurikoa izango da bereziki herri zainzaileagoa eraikitzeaxede duen egitasmo hau. Izan ere, Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkartearekin batu da eki-

men honetara. Bertan, lantalde bat dute gaztetxoaren artean pantailen erabilera egozia sustatu eta hauek erabiltzen hasteko adina atzeratzeko jardunean ari dena, Altxa Burua mugimenduan bateratu diren Gipuzkoako beste 50 auzo eta herrietako taldeekin batera. Usurbilgo taldeak lau urte darama lanketa honetan, ikastolakoekin lankidetzan. Aurrerapausoak ematen ari direla berri eman zuen talde horretako kide Izaskun De Miguelek Potxoenean. "Lortu dugu talde batzuekin mugikorren erabilera atzeratzea", adierazi zuen Potxoenean.

"HAIEN BEZEROAK OSO ONDO EZAGUTU ETA HARREMANTZEKO GUNEAK SORTZEN DITUZTE"

"DENONTZAKO IZANGO DA ONURAGARRIA. ELKAR LAGUNTZEKO GAUDE"

Ostegunean Gipuzkoa mailako Altxa Burua mugimenduarren hirugarren topaketa egin dute eta hara joateko deia egin zuen. Halere, agerraldi honetan egoteko beste arrazoirik bazuten. Izan ere, Usurbil zainzaileagoa izateko merkataritzaren sektorean sustatuko duten egitasmoaren baitan, herriko dendetara sartu eta telefonoa erabiltzea ahalbidetu nahi zaie hala behar duten gaztetxoei, beste zenbait herrietan egiten ari diren moduan.

Isilpeko lana ikusgarri

Merkatariek berez egiten duten isileko lana baloratu eta ikusgarri egiteko herri zainzailearen marka sortu dute; sare honetara batuko diren establezimenduek modu ikusgarrian jarria izango duten eta merkataritza zainzaile gisa identifikatuko dituen pegatina hain zuzen. Eskuorriak ere banatuko dituzte, xede batekin; toki seguruan, konfiantzazkoan egon eta bertan zainduak izango gara sentiarazteko eta "herri zainzaile horren parte denok gara" interpelatzeko. Usurbil azken urteotan zaintza eredu aldatzeko egiten ari den bidearen baitan daude ekimenok ere. "Argi dugu gure herriak prestatu behar ditugula erronka horri erantzun nahi badiogu", alkatearen esanetan. Erronka horri misio baterantsi diote Udaletik; 2030. urterako, "norbere bizitza proiektuari erantzungo dion zaintza eredu integral eta duina lortzea, erantzukidetasuna, eragileen arteko lankidetzeta eta zaintza langileen profesionalizazioa eta duintasuna ardatz izango duena". Horretarako, herri honek landutako bide-orria baliatuko dute.





Egurrezko sagardoaren Euskal Herri mailako seigarren txapelketako irabazleak. Irudi gehiago, noaia.eus atarian.

Sagardogileak dastatzaile bilakarazi zituen txapelketak

Indarberrituta itzuli zen igandean egurrezko ontzietan ondutako Euskal Herriko sagardo txapelketa, espazio berri batera, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunera. Sagardogileak ekitaldiko parte hartzaile aktibo bilakarazi zituen antolakuntzak seigarren edizio honetan.

Izan ere, lehiaketaren seigarren ediziora aurkezturiko 27 sagardogileak epaimahaiko kide bihurtu ziren. Lehiaketa bi faseetan banatu zuten. Lehen-bizikoan, parte hartzaileek eurek dastatu eta ebaluatu ahal izan zituzten lehiaturiko sagardoak, gerora epaile lanetan jardun zuten hiru epaimahaikideen gidaritzapean. 27tik hiru saritu behar zituzten gero, finalera sailkatu diren bederatz sagardoetatik. Horixe, beraz, aurtengo berrikuntza nagusia, espazio aldaketarekin batera. "Orain arte epaimahai batek bakarrik erabakitzen zuen. Sagardoa ekarritako jendea geratzen zen ez zekiela zer esan edo zer esan zen beren sagardoari

buruz. Aurtengo nobedadea dugu, denok dastatuko ditugula sagardo hauek", iragarri zuen Jakoba Errekondok ekitaldiaren hasieran. Modu hau, "hitz egiteko eta ikasteko erabili nahi dugu", gaineratu zuen. Etorkizunean, sagardoengarapenean egurra gako garrantzitsua izango dela berretsi zuen.

"Sagardo gastronomikoa"

Ez zuten lan erraza izan Mainer Larrañaga, Dani Corman eta Irati Amondarain adituek. Sagardo guztiak gorai patu zituzten. Hiru izan zitezkeen orde, sarituak. Hirugarren sagardo onena Jon Gallego herrikidearena izendatu zuten. Amondarainek sagardo gas-

tronomiko gisa definitu zuen. "Sagardo potentzial bat jabetxe on batean janariari ondo lagundua joaten dena". Cormanek oso atsegintzat eta sakontasun handikotzat jo zuen. Bere esanetan, "horrek egingo du hobeto konbinatzea elikagaiekin. Janaria eskatzen duen sagardoa da. Askok gustatu zaigu".

SAGARDOEN GARAPENEAN EGURRA GAKO GARRANTZITSUA IZANGO DELA BERRETSI ZUTEN

Bigarren saritua Anartz Minnerren sagardoa izan zen. Larrañagarentzat, sarituen artean "apur bat freskoena", "oreka oso ederrekoa". Cormanek ardo ederrekin alde-ratu zuen. "Sagardo oso fina eta elegantea, era berean intentsitate handikoa. Aho-zapore oso atsegina du". Amondarainek egurra eta sagar fruituaren arteko oreka aipatu zuen.

Sagardo txapelketa honen irabazlea, Edurne Aranburuk aurkezturiko edaria izan zen. Dastatze fasean Amondarainen taldean probatu zuten sagardo hau. Pozarren agertu zen txapel-dun amaitu zuelako. "Gehienok bat egin dugu, sagardo hau oso orekatua zegoela, oso ondo eginda eta positiboki gauza asko aurkitzen genizkiola adierazterakoan". Cormanek gaineratu zuenez, "krematsua da ahoan sartzerakoan. Burbuila edo txinparta ondo jarritakoa du, orekatsua da, sakonera duena. Egia esan, maila bikaineko sagardoa dela iruditu zait. Kolore oso polita du". Ildo beretik mintzatu zen baita Larrañaga. "Oso orekatua zegoen sagardoa izan da, oso elegantea. Ahoan zein sudurrean ezaugarri horiek denak batuta zeuden amaierako produktuan".

Hiru sarituak

- Usurbilgo Herriko Etxea Saria: Edurne Aranburu, 1.000 euro eta sariaren ziurtagiria.
- Alkartasuna Kooperatibaren Saria: Anartz Miner, 450 euroko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta sariaren ziurtagiria.
- Alkartasuna Kooperatibaren saria: Jon Gallego, 100 euroko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta sariaren ziurtagiria.
- Antolatzaileak: Alkartasuna Kooperatiba eta Sagardoaren Unibertsitatea.
- Laguntzaileak: Udala, Aginagako Eliza Zaharra Elkar-gunea, Euskal Sagardoa.



2019ko bozketarekin alderatuta, 12,91 puntu murriztu zen hauteskunde europarretako parte hartzea.

Parte hartzea murriztu arren, babes handiagoa

Parte hartzea nabarmen gutxitu arren, duela bost urteko emaitzekin alderatuta, babes handiagoarekin nagusitu zen EHBildu Usurbilen igandeko hauteskunde europarretan. PSOE-k aurre hartu zion EAJ-ri. Amaitu da azken urtebete honetako hauteskunde zikloa.

Botoen %57,94 eskuratuta (1.502 bozka) EHBildu nagusitu zen hauteskunde europarretan. Hirugarren indarra izan den EAJ-ren boto kopurua boskoiztera heldu zen; 368 bozka eskuratu zituen EAJ-k, botoen %14,19. PSOEk aurre hartu zion. Bigarren indar bozkatuena izan zen, botoen %15,54 eskuratu zituen (403 boto). Ehun boto baino gutxiago eskuratu zituzten gainerako eragileek.

Abstentzioa gorantz

Usurbilgo lehen hiru indar politikoen hurrenkera bera nagusitu zen baita Beterri Buruntza osoan, Lasarte-Orian izan ezik; EHBildu, segidan PSOE, bi eragileok 2019an baino babes gehiago eskuratuta eta hirugarren eragile bozkatuena EAJ izan zen.

Egunean zehar nagusitzen joandako joera berretsi zen hauteslekuak itxi ostean ere. 2019an eginiko aurreko hauteskunde europarren emaitzekin alderatuta, 7,79 puntutan murriztu zen parte hartzea 14:00etarako, 9,21 18:00etarako eta eguna amaitzerako 12,91eraino handitu zen aldea. Halere, eskualdean parte hartze handiena izandako udalerria izan zen honako hau. Izan ere, abstentzioaren gorakadari dagokionean, 14,07 puntu hazi da Hernanin, 16,89 puntu Andoainen, 16,99 puntu Lasarte-Orian, 19,50 puntu Astigarragan eta 23,70 puntu Urnietan. %50eko parte hartze muga gainditu duen Beterri Buruntzako udalerri bakarra izan da Usurbil (%52,43) Hernanirekin (50,09) batera. Gainerako udalerrietan %40-47ko

parte hartzea sustatu dute hauteskundeok. 2019an %60tik gorakoa izan zen parte hartzea eskualde osoan, nahiz gogorarazi behar den, jendea bozkatzera erakartzen duten deial-

di jendetsuenarekin, udal eta foru hauteskundeekin egokitu zela egun hura. Oraingo hau ez. Hauteskunde europarrek, azken urtebeteko hauteskunde prozesua amaitu da; momentuz, 2027. urtera arte.

Babes handiagoa

Boto kopurua murriztu arren, hainbat eragileek duela bost urte baino babes handiagoa lortu dute. EHBilduk 138 boto-kopurua izan arren, 4,42 puntutan hazi da usurbildarrek emandako babes. 5,79 puntutan gehitu zuen babes hori PSOE-k, boto kopurua ere gehitu zuten. 2019ko emaitzekin alderatuta, 104 bozka gehiago eskuratu zituen PSOE-k. Hirugarren indar bozkatuena EAJ izan zen, ia botoen erdia galduta, 7,90 puntutan murriztu da jeltzaleek eskuratutako babes. Haren atzetik, PP sailkatu zen laugarren postuan eta 1,97 puntu gehiagoko babes eskuratu zuen. Duela bost urteko boto kopuruaren herena eskuratu zuen, bestalde, Podemos. 5,53 puntutan murriztu zen herritarrek emandako babes. Ia Sumarrekin (58 eta 54 boto hurrenez hurren) berdinduta amaitu zuen. Boto gutxi batzuk eskuratu dituzten artean dira, aurreko deialdietan bezala VOX (22 boto) eta oraingoan hari aurre hartu dion ultraeskuineko beste eragilea; "Se acabó la fiesta" (24 boto).

Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak

Hautagai-zerrenda	2024	2019	Aldea
EHBildu	1.502, %57,94	1.640, %53,52	+4,42
PSOE	403, %15,54	299, %9,75	+5,79
EAJ	368, %14,19	677, %22,09	-7,90
PP	95, %3,66	52, %1,69	+1,97
Podemos	58, %2,23	238, %7,76	-5,53
Sumar	54, %2,08		
"Se acabó la fiesta"	24, %0,92		
VOX	22, %0,84	9, %0,29	+0,55
PACMA	18, %0,69	11, %0,35	+0,34
Escaños en Blanco	5, %0,19		

Aurreko igandeko hauteskundeetako emaitzak Usurbilen.



Birna Cruz eta Josu Arruti Andatza tabernaren atarian, Matia fundazioak Kalezarren duen Egurtzegi egoitzan.

"Zure lantokian, zu zure nagusia izateak abantailak eta desabantailak ditu"

BIRNA CRUZ ANDATZA TABERNAKO KUDEATZAILEA

Birna Cruz eta Josu Arrutik duela urte erdi hartu zuten Andatza tabernaren ardura. "NOAUA!n agertu zen iragarkiari esker" izan zuten Egurtzegi egoitzaren eskaintzaren berri. Matiako egoiliarrentzat ez ezik, herritar guztiei zabalik dagoen taberna-jatetxea da.

Duela hilabete batzuk Andatza taberna-jatetxea ireki zenuten. Nolatan erabaki zenuten negozio hau hastea?

NOAUA!n agertu zen iragarkiari esker izan zen. Josuk, nire senarrak, hor ikusi zuen Matiak taberna irekitzeko asmoa zuela eta jende bila zebiltzala zioen iragarkia. Herriko jendea nahi zuten egoitza Usurbilen barnera zedin. Handik sortu zen ideia. Lehiaketara aurkeztu ginen eta herrian familia ezaguna garen eta ostalaritzan ibilbide luzea dugunez, Matiak gure aldeko apustua egitea erabaki zuen. Jende askok eman zuen izena lehiaketan edo hori uste dugu, nahiz eta inoiz ez ditugun datu horiek izan. Arduradunekin elkarrizketa bat egin behar

izan genuen eta tabernarako genuen ideia azaldu. Herriko jendeari eta egoitzakoei eguneko menuak edo plater konbinatuak eskaini nahigenizkien, jendea eroso senti zedin. Aisialdirako tokia izatea nahi genuen, eta inguru honetan tabernarik ez dagoenez, taberna/jatetxe bat behar zen Matiako egoiliarrentzat eta etxe berriak eraiki ondoren, auzora

"OSTALARITZAN IBILBIDE LUZEA DUGUNEZ, MATIAK GURE ALDEKO APUSTUA EGITEA ERABAKI ZUEN"

etorri den jende berriarentzat. Prozesuaren amaieran, aukeratuak izan ginela esan ziguten. Beraz, Matiak gauza batzuk errazten dizkigu, baina gauza batzuetarako inbertsioa egin behar izan dugu: platerak, mahai-tresnak, kobratzeko makina... Oinarri bat eman ziguten lan egiteko eta lokala alokatzen digute. Beste guztiak egin dugu.

"EGUNEKO MENUA, PLATER KONBINATUAK ETA KAFETEGIKO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU"

Nola erantzun dio jendeak zuen irekierari? Jendea etortzen ari da?

Duela gutxi ireki genuen. Urriaren 6an tabernaren inaugurazioa izan zen eta gaur egun hemen aurrera egin dezan borrokan jarraitzen dugu. Ez gaude erdigunean, eta hasieran uste genuen hori arazo bat izango zela; hala ere, jendeak laguntza handia ematen digu eta erreserbak egiten ari da. Zerbitzuekin oso gustura daudela esaten digute, eta gu gustura gaude beraiekin ere. Janaria probatzera datoz. Etxean egindako janaria egiten dugu, eta beti Antxeta tabernako filosofia berarekin. Etxeko janaria egiteko ohitura horri eusten diogu.

Lan burokratiko handia egin behar izan zenuten?

Prozedura zehatz bati jarraitu behar izan genion. Hainbat paper sinatu, sozietatea sortu eta merkataritza-erregistroan inskribatu. Ez da lan aspergarria edo zaila, baina ondo egin behar da, ondo irakurri eta sinatu. Akordioak lortu ditugu eta dena ondo joan da.

Zer zerbitzu eskaintzen dituzue eta zer ordutegi duzue?

Oraingoz goizeko 9:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte eskaintzen dugu zerbitzua. Eguneko menua, plater konbinatuak, anoak eta kafetegiko zerbitzuak ematen ditugu. Oraingoz ez gara afariak ematen ari, apur bat nekatuta gaudelako. Hasiberri gaude oraindik eta asteburuetan kalitatezko zerbitzua emateko afariak oraingoz ez ematea erabaki dugu. Eguneko menuak probestu eta jendeari kalitatea eskaini nahi diogu. Ondo egon nahi dugu eta lantaldea finkatu, ahalik eta modurik onenean negozioa aurrera eraman ahal izateko.

Matian zaudete. Zuen bezeroak oso lotuta daude bertako egoiliarrekin eta haien senideekin, ala Usurbildik ere jende asko etortzen al da?

Bai. Bietako bezeroak ditugu. Egoiliarren eta egoiliarren senideen zatia ziurtatzen duzu bezero finakoak izateko kokalekuagatik. Inguru hauetan ez dago taberna gehiagorik eta senitartekoa bisitatu ostean, oso aukera ona da bertatik bertara kafetxo bat hartzeko aukera izatea.

Herriko jendea etortzean, ulertzen dugu Usurbilgo jate-txe asko baino urrunago gaudela, baina oso harro gaude beste aukera batzuk gertuago izanda ere aukeratu egiten gaituztelako. Horrek oso zoriontsu egiten gaitu.

Jende askok ezagutuko du Josu, baina kontu iezaguzu nor zaren zu, Birna.

Hondurastarra naiz. 10 urte baino gehiago daramatzat hemen bizitzen. Ostalaritzan hau izan da nire lehen esperientzia, baina, hala ere, familiaren eta langileen laguntza handia dut. 3 urteko haurra dugu, eta familiaren laguntzak lana eta familia uztartzen laguntzen digu. Edozer gauza behar badut, aitagarrebak eta izebak beti prest daude guri laguntzeko. Herriak eta familiak oso harrera ona egin didate. Beste herrialde batetik etorri naiz eta han zuzenbide ikasketak egiten ari nintzen, baina ezin izan nituen ikasketak horiek amaitu. Hona



"Oraingoz goizeko 9:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte eskaintzen dugu zerbitzua".

iristean, batxilergoa baliozko-tu eta enpresen administrazio-ko goi mailako ikasketak egin nituen. Beraz, tabernako kontabilitatea eramaten dut eta oso gustura sentitzen naiz. Laguntza handia eman didate eta oso pozik nago.

"HONDURASTARRA NAIZ. USURBILEN HARRERA OSO ONA EGIN DIDATE"

Ba al duzu aurretiko lan-esperientziarik?

Bai. Garbiketan, adineko pertsonak zaintzen eta ostalaritzan aritu naiz aitagarrebaren tabernan laguntzen pandemia baino lehentxeago eta pandemia garaian.

"ARRISKATU BEHAR DA. HELBURUAK LORTZEKO BORROKATU BEHARRA DAGO"

Beraz, orain topera gaude proiektu berriarekin.

Orain arte hirugarren pertsona batentzat lan egin duzu. Egunerokoa asko aldatzen da zure nagusia izanda?

Bere abantailak eta desabantailak ditu, beste guztiak bezala. Zure nagusia izanda, ordutegia aukera dezakezu, baina guztiaren zain egon behar duzu.

Baina azkenean, nik uste dut arriskatzen ez duenak ez duela irabazten bitzita honetan. Helburuak lortzeko borrokatu behar da.

"Asteburuetan familia osoa batzen gara lanerako"

Zure bikotekidearekin lan egiten duzu. Jende askori beldurra ematen dio ezkontidearekin negozio batean sartzeak.

Egia esan, guk oso ondo eramaten dugu. Goizetan Josuk lana dauka, baina beti dago zain, zerbait falta bazaigu ere. Askotan, lanetik ateratzen denean, hemen egoten da, eta asteburuetan familia osoa

batzen gara lanerako. Jen-deak esaten du bikotearekin arazoak izan ditza-kezula, baina indarrak batzen badituzue laguntza izan dezakezue, eta nire kasuan, familiaren laguntza handia dut. Familia izate hutsagatik, beti saiatzen dira pixka bat gehiagoko ematen. Estualdietan beti egoten da hor. Josu eta biok taberna honetako

bazkideak gara eta beti laguntzen dugu elkar. Nik kontabilitatea daramat, hornitzaileak antolatzen ditut eta zerbitzaria ere banaiz.

Josu langileez eta, behar izanez gero, zerbitzariak arduratzen da.

Etorkizunera begira ekimene berriren bat ezarri nahi al duzue?

Lehenik eta behin, egonkortu eta ondo lan egin 19:30ak arte. Behin ondo gaudenean, afariekin saiatuko gara berriro. Ireki genuenean afariak ematen ere hasi ginen, baina gero utzi egin genion nekeagatik.

Denbora behar dugu familiaz gozatzeko, baina lana egonkor dagoenean afariekin saiatuko gara berriro.

Aitzaga Kultur Elkartea: "Eskerrik asko Usurbil!"

Pozarren eta esker oneko agertu dira Aitzaga Kultur Elkartekoak ekainaren 1eko 30. urtemuga jaialdiaren ondoren.

Jendetza batu zen kontzertuan, eta jendea ibili zen egun osoan zehar. Balorazio gisa, eskertza mezu bat zabaldu nahi du Aitzagak: "Eskerrak eman nahi dizkizuegu Aitzagaren 30. urteurren jaialdia aurrera ateratzen lagundu zenuten guztioi eta bertaratu zinenetoi! Zuek gabe Aitzaga ez litzateke egun dena izango. Eskerrik asko Usurbil!".

Dokumentala sarean

Egunari urtemugako hasiera ekitaldiarekin ekin zioten. Bertan, errezitatuz eta abestuz omendu zuten 30 urte bete-

tako herriko elkarte. Horrekin batera, Aitzaga oroitu, omentzeko tartea hartu zuten. Izan ere, belaunaldi ezberdinetako Aitzaga kide ezberdinen ahotik, hiru hamarkada hauen ibilbideko hainbat mugarri, bizipen, une gogor eta gozoak gogoratu zituzten, hitzordu hartan proiektaturiko ikus-entzunezkoan.

Aitzaga elkarteko kideek sarean zintzilikatu dute jada ordu laurden pasatxoko dokumentala, Youtubeko Usurbilgo Sorturen kanalean.

Jaialdia igaro da bai, baina oraindik 30. urtemugari lotu-



Irulegiko aztarnategira irteera antolatuta dute larunbat honetarako. ARANZADI

tako hitzordurik badu Aitzaga kultur Elkartek; iragan maiztean Irulegiko eskuari buruz eginiko hitzaldiaren harira, hango aztarnategira bisita gidatua antolatuta dute.

Aitzaga K.E.-k 30 urte

Ekainak 15, larunbata

• 8:15 Irulegira irteera Oiardo kiroldetitik autobusez. "Bertan Irulegiko aztarnategiaren bi-

sita gidatu bat izango da. Goi-zean abiatu eta eguerdi bueltarako izango da itzulera".

- Izen-ematea, Aitzagan.
- Joan-etorria eta bisita gidatuen prezioa: 25 euro helduek, 15 euro haurrek.
- 21:00 Folkcore V. Asambleta eta Elektropapo taldeen kontzertua, "eta ondoren Bigiliya Aitzaga aurrean Aitzaga tabernak antolatuta".
- Antolatzailea: Aitzaga kultur elkarte.



Energia komunitatearen ohiko batzar orokorra Artzabalen egingo da aurten.

Sortalderen Batzar Orokorra Artzabalen izango da

Ekainaren 19an egingo da, Artzabalgo Areto Nagusian. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta batzarraren amaieran "mokadutxo bat jango dugu bertan".

Sortalde Usurbilgo energia komunitateak ohiko batzar orokorrera hurbiltzeko deia luzatu die kooperatibako kideei. Da-

torren asteazkenean batuko dira, hilaren 19an, Artzabalgo Areto Nagusian. Estatutuei jarraituz, hiru deialdi egin dituz-

te. 18:30ean ezarri dute lehena, 19:00etan bigarrena eta 19:30ean hirugarrena.

19:00etan hasiko da batzarra

"Hala ere, bigarren deialdian batzarra hasteko moduan izango garela aurreikusten dugu. Beraz, 19:00etarako agertzeko eskatzen zaizue bazkideei", ohar bidez jakinarazi duenez.

lazko balantzea, aurtengo plana eta aurrekontua

Beste puntu batzuen artean, 2023. urteko ekitaldiko balantzearen berri emango dute eta Sortalde energia komunitateak 2024. urterako osatu duen plana eta aurrekontua aurkeztuko dituzte. Horrelakoetan ohiko izaten den moduan, galde-eskaerako tarterik ere izango da.

Batzarra eta gero, mokadua

Batzarra amaitutakoan, mokadutxo bat egingo dute Artzabalgo tabernan.

Zorione Mendez, "Vachoca" tailerreko saioan

Zorione Mendezek "Vachoca" tailer artistikoaren saio berria gidatuko du ekainaren 17an, 11:00-12:30 artean. Gogoan izan, "etxea gaitzat harturik, tailer artistiko bat bideratuko da modu praktikoa batean. Material desberdinekin esperimentatuz eta jolastuz momentu atsegin bat igaroz. Bakarkako zein taldeko ariketak egingo dira bertan. Proiektuan zehar ezagututako pertsonen egoerak kontatuko dira elkarrizketa eta kontzientziak kritiko eraikitzailea bultzatuz". 15 lagunentzako lekua egongo da tailer artistiko honetan.

Izena aurrez eman beharko da, ganbara.sormentailerra@gmail.com helbidean. Herri-tar orori zuzendua egongo da, elebitan eskainiko den saioa.

MERKATU TXIKIA

ERREBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukalde. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

ALOKAIRUAN

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabilta. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari baten beharrean gaude. Garrantzitsua esperientzia izatea. 670654272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurgildun aulkia salgai, berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Interesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 13	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 14	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 15	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 16	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astelehena, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Asteartea, 18	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Asteazkena, 19	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Osteguna, 20	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 21	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Larunbata, 22	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 23	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Pilota Txapelketa, finalurrekoetan

Asteburu honetan jokatuko dira Usurbilgo 51. Pilota Txapelketako finalurrekoak. Finalak, ohi bezala, uztailearen 2an jokatuko dira.

Azken emaitzak:

Maiatzak 24, seniorrak:

Elizalde-Lazkoz 22
Olaetxea- Azpiz 16

Landa-Aranguren 22
Elola-Balardi 16

Maiatzak 25, kadeteak:

Zazpi Iturri 22 - Pagazpe 19

Seniorrak:

Barbajero-Santesteban 22
Astiz-Villanueva 19

Maiatzak 26, kadeteak:

Pagazpe 2 22 - Oiarpe 16

Seniorrak:

Txoperena- Urruzola 22
Igoa-Irazustabarrena 15

Asteburu honetan,

finalurrekoak:

Ekainak 14 ostirala, 18:30:

Kadeteak:

Pagazpe 1 (Alejo-Pagola)

Lapke (Landa-Elola)

Seniorrak:

Elizalde-Lazkoz

Barbajero-Santesteban

Ekainak 15 larunbata, 11:30:

Kadeteak:

Zazpi iturri (Gorostidi-Olano)

Pagazpe 2 (Aburuza-Errasti)

Seniorrak:

Landa-Aranguren

Txoperena-Urruzola

Zorion-agurrak

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Etor zaitetz gure bulegora bestela, edo telefonoz deitu: 943 360 321.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus


OSTIRALA 14

USURBIL "Agenda 30"
Udarregiko ikasleen saioa
09:30 Udalbatza aretoan.**KALEZAR "Greba feminista orokorra. Eta orain zer?"**
17:00 Lanketa Pelaiogean.**USURBIL Zumarteko**
kontzertuak
18:00 Zumarteko plazatxoan.**USURBIL Kantu-jira berezia**
19:00 Kantu-jira-poteoa Mikel Laboa plazan.
20:30 Kantu-afaria Patriegian.

LARUNBATA 15

USURBIL Elkargunea, parte hartze prozesua
10:00-13:30 Udarregiko jangelan.**USURBIL Zumarteko**
kontzertuak
17:00 Kalejira frontoitik abiatuta.
18:00 Frontoian, kontzertuak.**KALEZAR Bertso-afaria**
Jexux Irazu eta Aitor Mendiluzerekin.
20:30 Peña Pagola elkartearen.**USURBIL Kontzertuak: Folckore eta Elektropapo**
21:00 Aitzaga aurrean.

IGANDEA 16

USURBIL 4. Uxue Trail
9:00 Usurbilgo frontoian.

Ostiral honetan, Zumarte aurreko plazatxoan egingo dira kontzertuak.

Ikasturte amaierako kontzertuak

Udaren atarian gaudenez, ikasturteari amaiera eman eta oporraldietan murgiltzeko garaia iritsi da. Zumarte Musika Eskolak zuzenekoak eskainiz itxiko du 2023-2024 ikasturtea.

Ekainak 14 ostirala
• 18:00 Zumarte musika eskolako aurreko plazatxoan. Ikasle

Elektropapo eta Folckoreren kontzertua

Ekainaren 15ean larunbata, Folckore eta Elektropapo taldeak zuzenean arituko dira Aitzaga tabernaren aurrean. Kontzertua gaueko 21:00etan hasiko da.

tade ezberdinak arituko dira zuzenean.

Ekainak 15 larunbata
• 17:00 Trikitixa, pandero, haize, perkusioko ikasleen kalejira frontoitik hasita.
• 18:00 Frontoian, Zumarteko musika txokoa, mintzaira, abesbatza eta talde instrumental desberdinen kontzertua.

Bertso-saioa Jexux Irazu eta Aitor Mendiluzerekin

Kalezarko Peña Pagola elkarteak bertso-afaria antolatu du ekainaren 15erako. Jexux Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak arituko dira. Izen-ematea maiatzaren 31n itxi zen.

Pentsiodunen batzarra

Gipuzkoako pentsiodunen batzarra ekainaren 13an ospatuko da Sutegin. Bilkura goizeko 10:00etan hasiko da.

Xake tailerra Sutegin

Ekainak 26, asteazkena
11.30-13:00, Sutegin
• Hastapena: Xakean ikasi edo/eta lehen pausuak eman nahi dituen edonorentzat.
• Izen-ematea, udal liburutegian.**Ekainak 27, osteguna**
11.30-13:00, Sutegin
• Hobekuntza: Xakean sakondu nahi duen edonorentzat.
• Izen-ematea, udal liburutegian.

Usurbilgo jaien aurkezpena

Usurbilgo Jai Batzordeak ekitaldi bat iragarri du asteleheneko, hilaren 17rako. 18:00etan, Mikel Laboa plazan.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
• paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

txirriStra
TABERNA
• PLATER KOMBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66


www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

'ARTXIBO BILUZIA' LIBURUA

Joan Mari Torrealdai bekari esker argitara emana

Egilea: Metrokoadroka sormen kolektiboa

Agitaratzaileak: Usurbilgo Udala, Jakin



ESKAERAK



943 360 321



elkartea@noaua.eus



NOAUAKo bazkideei eskaintza berezia 17 euro
DENDAN 20 euro

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Gipuzkoa mugitu,
Gipuzkoa sentituz.

**Batzen gaituenak,
mugitzen gaitu.**



Ezagutu Kutxa Fundazio berria.
www.kutxafundazioa.eus/garaiberibat



GIPUZKOA

Ekin.

*Gipuzkoa
oparoagoa
izateko.*

Zaindu.

*Pertsona guztiak eta
horien ingurukoak
zaintzen dituen.*

Bizi.

*Ondo eta
duin bizi
daitezen.*



GIPUZKOA
Foru Aldundia